

-GUR'ICHTEPANA-

Acte I

Scène I

La Nurse, Elisa, puis Rosalie.

(La Nurse dans un joli costume, cape et voile bleu, figure très peinte, enfoncée dans un fauteuil près du guéridon, est entrain de lire une revue.)

- ELISA..:(entre par la porte gauche, traverse la pièce et va sortir vers la droite quand elle aperçoit la Nurse. Elle s'arrête et faisant la révérence:  
Bonjour Melle Nelly! (silence)  
(s'approchant) Melle est très occupée?... C'est un roman?... Ah! tiens, pardi le Petit Echo de la Mode!
- NURSE..:(se redressant et affectant l'accent) Voni!-précisément! N'en déplaie à vous Melle Elisa...(puis ironique) Ym'faudrait p't'être ben votre visa pour lir' ce qui m'plait?
- ELISA..:(reculant) Mon...quoi? Comment tu dis? Tu en as de grands mots pour une petite basquaise que...
- Nurse..:(achevant) que tu es toi!
- ELISA..:Batere ahalgerik gabe. Uste badun hire frantchinent zerratuiare kin zerbeit gehiago hizela! Artzen ahal hiz ba, gu bezala Eskuraz, jakin izanki eta!
- NURSE..:Elisa, je t'ai déjà dit que je n'aime pas ce jargon, bien que je sache le parler à la rigueur...Ma nourrice me l'apprit bien autrefois. Tiens! je saurais te dire par exemple ce que tu mérites: Salhatari eta salsapot!
- ELISA..:Badakina zer erraiten duhan?
- NURSE..:Ez dakina zer erabili duhan? Etxeko anderia ongi eskolatu bide duan ene gainian.
- ELISA..:(éclate de rire) Melle samartuia, ikhusi dugulakots M. Roberreck!
- NURSE..:(se lève) Nik ez denat galdatzen erabiltzen hizenez zuen eyherazeinarenkin!
- ELISA..:Beharbada, hobeki hel hindake hi ere erabil bahinbadi eyherazeinarenkin! Irina bederen bahuké urririk hire mathel hezurren estaltzeko.
- NURSE..:Peka hor, jeloskor tzarra!
- ELISA..:Urgulutsu handia!
- NURSE..:Buhamia!
- ROSALIE:(grosse cuisinière entre en ouragan et se campant les mains aux hanches; dans la main gauche elle serre une louche qu'elle appuie sur le ventre) Emazue hor nechkak! oihu, dantza eta pampa... eta espanolak dioena aufa la fiesta! (elle saute en brandissant sa louche puis s'arrêtant devant la Nurse) Zer! Melle Nelly ari bitzen holako complimentuetan! Félicitations Melle!
- NURSE..:(embarrassée cherche une explication) Vous comprenez bien Rosalie que...
- Elisa;;;Guk uste baino sabantago dugu anderia, Eskuararik ez zankiela! Ori ederrenak bederen badazki.
- ROSALIE:Ez da zerbitzatzen ez denik Melle, Ori fuilla itzuli gabe, kapitulu beretik hasten ahalko zira zure haur tchar hari buruz.
- NURSE..:Ez dea oihan Babette?

ROSALIE: Ba, bainan ez berian. Hantone da Maamen oiharen gainean, pupe,  
chakur eta gathuarekin; eni errechimet untzi bat ebatsirik haren  
jaten, denak phartzuer!  
NURSE...: (s'élançant par la porte de g.) Apho chizchila!  
ROSALIE: (la suit en brandissant sa louche) Den bezalako!

Scène II  
ELISA, KATTALIN, GACHIU.

ELISA...: (va prendre sur le guéridon la revue laissée par la Nurse et s'asse-  
seyant dans le même fauteuil) Ah! nik ere egin baneza pochi bat saba-  
bantarena, Melle Nellyren gisa... Gure haur zeinaren asaldatzea!  
Nor gira gu?... Badinat beldurra estofa'ttipiko nechka den, bere  
fantasia guziekin... Haren etchekoak hau eta hura direla, nahi nizker  
*Kattalin* ikhusi haatik! ( on sonne) Nor othe da hor? ( on sonne encore, on  
frappe bruyamment puis on hèle): Hela! nun ziezte jendeak?)  
ELISA...: (se lève, entr'ouvre la porte du fond et regardant vers le fond du  
couloir à droite) Sar ziezte anderiak. ( une voix qui se rapproche  
dans un vacarme) Lumero hamabostean girea, ala trompatu gira anderia  
ELISA...: Bai, bai hamabostean zireste; zatozte aintzina ( à aprt vers la  
scène) Zer othe dut jende hok! ( elle ouvre la porte et s'efface pour  
laisser entrer.)  
( Entrent 2 paysannes, Kattalin et Gach iu, costumes démodés, para-  
pluies, sacs de marché, gros paniers)  
KATTALIN: Barkatu! Jainkoak dizziela egun on Etchek anderia!  
ELISA...: Ez niz Etchek anderia, " femme de chambre" gisa niz hemen. Etcheko  
anderia kampoan da egun, nahi balinbazinuten ikhusi...  
GACHIU...: (vers Kattalin) Hobe, hobe hola trankilago izanen gitun.  
KAT....: Nahi ginuke ikhusi ,gur'Ichtefana.  
ELISA...: Nor plazer baduzu!  
KAT....: Gur'Ichtefana; hemen haur zein dagona.  
ELISA...: Ah! baba. Elkharrarazten dutzuetet ichtantian, jar zaizte. (Les 2  
femmes hésitent un moment puis la mine ahurie finissent par s'as-  
seoir, Gachiu sur une Chaise, Kattalin sur un fauteuil avec tous  
leurs bagages sur les genoux. Pendant ce temps Elisa s'écarte un  
peu vers le devant de la scène et pouffant de rire) Melle Nelly  
Gur'Ichtefana! no, hau ederra diun. Zer irriak behar tugun egin  
sukhaldian!... ( puis revenant vers les 2 femmes) Nor behar dakot  
erran jina dela Melle Nel... edo Gur'Ichtefanari!  
GACHIU...: Errakozu hemen direla haren ama eta ttantta.  
KATTALIN: Ez! ez erran nor den! (à Gachiu) Harriarazi behar diun Gur'Ichte-  
fana, zer Kontenta behar duen. (à Elisa) Errakozu norbeit badela;  
ez erran nor!  
ELISA...: Zande trankil. Ez jakinarena eginen dut ( à part) Ikhusteko zer  
muthur eginen duen Gur'Ichtefanak. ( elle éclate de rire et dispa-  
rait par la porte de gauche.)

Scène III  
KATTALIN et GACHIU

KATTALIN: Zer nechka cahrmanta! Egi erran, Etcheko anderiarentzat har zita-  
ken. Ikhusiko dun Gur'Ichtefana hola hola izanen dela. Zer den  
haatik jende handietan izaitea.

GACHIU...: Ni ez nin hala gustatu, Kattalin, eta badinat beldurra charmanta bezen ergela ditakeen nechka hori... Hik ere hobeki eginen huen beharbada atchiki bahu Gur'Ichtefana etchean, ezen hiriraz geroz gorphutzak irabazia arimak galtzen din. Hambeste lanjer...

KATTALIN: (fâchée) Bainan; erran no Gachiu! Hire mutchurdin solasekin, zer dautan/ erakutsi nahi ama baten eginbideak? Hik ez huke naski ama bat beizik Gur'Ichtefanarentzat, hire ondok ezartzia Andere serora gisa! ( on entend une vois d'enfant qui appelle dans le couloir) Lelly, Lelly!

GACHIU...: ( se levant embarrassée) Jeik hadi hire fotoila hortarik, nehorri irri eginarazi gabe!

KATTALIN: (se lève) Ba, eta phuska hok gorde bagintza!... No hemen fotoila hunen gibelean (elles y cachent paniers et sacs précipitamment) Hola nehork ez ditin ikhusiko, eta Gur' Ichtefana harri araziko egin diun.

GACHIU...: Hor dun ( elle montre la porte de gauche) Bazter giten (elles se palquent contre la double porte du fond)

#### Scène IV

Les mêmes plus la Nurse et Babette)

NURSE...: Zuek!... zuek hemen!

KAT et G: (en même temps) Gur'Ichtefana! (elles courent à elle et l'embrassent avec effusion)

KAT.....: (la caressant) Ba, gu hemen! Zer uste gabeko plazefra, content hiz Gur'Ichtefana!

NURSE...: (visiblement agacée et se dégageant) Ba content niz zuen ikhustiaz bainan... ez da hola heldu besten etcherat... abisatu gabe eta...

KAT.....: (naïve) Comprenituko dine ba hire nagusiek. Jin ahal zitazken ama bat eta tanta bat ere haurraren ikhusterat?

NURSE...: Bichtan da bainan... zagozte ichilago; ez da Bordale Bidarray bezala gero; hemen murruek berek batuzte beharriak.

BABETTE.: (qui jusaqu'à maintenant n'avait pas cessé d'observer les visiteuses, allant d'un côté à l'autre de la Nurse, s'arrête contre elle, accrochée à la cape et après avoir baillé bruyamment s'écrie): Z'ai sommeil, ze suis fatiguée!

NURSE...: Oui Melle Babette, je vais vous mettre au lit tout de suite! (vers K et G) zagozte aphur bat, heldu niz berehala (elle entraîne Babette qui se retourne et tire la langue aux 2 femmes en faisant la grimace).

#### Scène V

KATTALIN et GACHIU

GACHIU...: (indignée) Ikhusi dunax haur gastatu horrek egin daukun agurra! Gu, Bidarrain salbaiak girela, no, ez ditun hemen ere biziki ontsa ikhasiak.

KATTALIN: Eguadi deskantsu. Heziko din ba Gur'Ichtefanak. Hea zer lardarian joan diren oherat!... Eta zoin ontsa den Gur'Ichtefana! Ohartu hiza mathela kasko heier, eta ezpain batzu gerezi onthuak bezen gorriak.

GACHIU...: Ez zakinat... bainan ni beldur, ez othe duen thindu puska bat gainetik kolatua!

KATTALIN: (proteste avec énergie) Erhotu hiza!... Eta gero uste badun denak hi bezala direla tuacha chimur baten pare!

GACHIU...: (concoquante et malicieuse) Bon! agian ez... bainan nahi niken jakin gutarik biatarik zoinnek duen mokanesa begietan! (elles s'asseient de nouveau)

Scène VI  
Les mêmes plus la Nurse

NURSE...:(entrant et avec nervosité) Nork sarrarazi ziuztete barne huntan?  
KATTALIN:Arras nechka plantako, batek, cheiha eta alegera...  
GACHIU...:Ene gostuko pochi bat ergela haatik!...  
NURSE...:Elisa! (à part) ez ninan deusen beharragorik! Balanki sekulan!  
(On frappe à la porte du fond) Entrez!

Scène VII  
Les mêmes plus Rosalie

ROCHALIE:Barkhatu anderiak. Dutea prest da. Hunat beharko duta ekharri?  
KATTALIN:Ez dugu deusen beharrik gaichoa...  
NURSE...:(hésitante) Ez hunat ekhar ez...edo ba ekharrazu hunat, arrazoine dugu Rosalie.(à part) Sukhaldian irri onik egin lezakene (entraînant Rochalie vers la porte) Ene amaño chahar bat dut hemen eta haren ahizpa (s'efforçant de rire) bere haurraz onortuz erraiten dautate Gur'Ichtefana!  
ROCHALIE:Ontsa da Melle Nelly.!

Scène VIII  
Les mêmes moins Rochalie

NURSE...:(fort préoccupée) Orai, enekin janen duzue zalhu zalhuia eta gero...Zer egingo duzue?  
KATTALIN:(avec empressement) Athera, athera, gaichoa hirekin. Juanenx gitur elizen bisitatzerat eta hilherrietarat. Zer da gehiago ikhusteko hiri batian? Utziko ahal hite hire nagusiek?  
NURSE...:(remuant les sièges, bousculant les revues) Etchekeo anderia ez dut etchean, eta ez diot nehondik haurra bera utz.  
KATTALIN:Bazarezte frango sehi etche huntan. Ochtiko nechka alegera hura egonen du ba ichtant bat hire orde haurrarekin.  
NURSE...:Ez da hoi haren lana. Hemen bakhotchak ber egitekoak egin atada ez du bestez okupatzerik.  
GACHIU...:Beraz joanen gitun ama eta biak. Aski daizkun karriken izenak emaita.  
NURSE...:Eta gero...? Zer tenoraz duzue zuen treina?  
KATTALIN:Erranen denat Gur'Ichtefana, kabalak beharden bezala arthaturik jinak gitun. Ontsa tun binar eguerdi artio. Beraz gaua, gostuan phasatuko diun hemen!  
NURSE...:(de plus en plus agitée)Behar dautzuetet erran...ene nagusiek batuztela bere gisako idea batzu eta...ez lakokatela beharbada ontsa zuek jitea etzaterat abisatu gabe... Erasia onik banuke ori! Beraz jan ondoan beharko zituztet despeitu.(à part)M.Roberek ez balitza bederen hatcheman!(haut) Beste aldian ez huts egin ene abertitzea.  
GACHIU...:Zer erraiten nenan Kattalin, Igorhogoi soseko timbre bat arrapostuaren ukhaiteko treina hartu baino lehen. Ez ninan beste beldurrik.  
KATTALIN...:(fâché)Timbrebat, timbrebat! Ene alabaren ikhusterat joaiteko. Po ta ere hain khario, gauza guziak bezala! Norat ari gira, Jainko ona (se rasoucissant vers Ichtefana)Bizkitarteon, Gur'Ichtefana, ez diat nahi gure gatik izan hadin erasiatua. Holadenaz geroz hartuko diun zazpi orenetako treina.

GACHIU...:Eta ez gitun berriz behin hunarako.  
KATTALIN...:(se cache pour essuyer une larme)  
NURSE...:(à part dans un soubresaut) Gaicho ama, haatik!

#### Scène IX

Les mêmes, Rosalie entre avec un plateau chargé

NURSE...:(débarasse le guéridon et s'empresse de disposer les tasses)  
ROSALIE...:Horra jende maiteak. Eman dautzuetet zombait ogi zerra chigortu-rik burrarekin. Jan zazue etchen bazinezte bezala. Ez dea hala Melle, aldi bat bederen egin dezagun etheko anderia guk ere (mi- mique)  
NURSE...:Ez du ordian berririk igorri etheko anderiak.  
ROSALIE...:Ez! bainan ez dugun arrangurarik ere...Hola, apetitu on anderiak.  
NURSE...:Milesker Rosalie, sarri arte.

#### Scène X

Les mêmes moins Rosalie

NURSE...:Hurbil zarezte biak.  
KATTALIN...:(collée à son fauteuil et approchant gauchement) Zombait desarra- yamendu behar gabe. Zertako ez joan sukhalderat, hartuk gininan ogi pochi bat gasna miko batekin, baso erdi bat arno, eta erre- ginak bezala izanen ginitunan.  
NURSE...:Hemen trankilago izanen gira biziki...Zombait sukre mokhor zuk tanta dutian?  
GACHIU...:Ez dinat, ez dinat duterik nahi. Nok daki hiri hotako dutiak zer drogerekin eginak diren.  
NURSE...:Chinako dutia, lehen kalitatea.  
GACHIU...:Izan dadiela nahi badu Chinako eda Espainiako lehen ala bigarren kalitatea, nik nahiago dinat ogi pochi bat eta arno chorta bat.  
KATTALIN...:Nik ere ba beraz Gur'Ichtefana. Ekharri bi baso erdi arno.  
NURSE...:(se fâchant) Zoin hastiroak ziresten! Ez dugu arnorik gure esku- ko arasaldetan (offrant le thé) Har zazue jastatzeko doa.  
KATTALIN...:(se laissent faire) Hiri plazer egiteko, eman ihitz bat. Askia, aski!  
NURSE...:Zuk tanta?  
GACHIU...:Eman beraz nigar bat, sukriaren bustitzeko doa.  
NURSE...:(se verse  $\frac{1}{2}$  tasse) Har kitzue ogi eta burra, eta bichkotzak (elle prend un gâteau et court à la fenêtre) (Pendant ce temps, les autres mangent en s'interrompant pour lancer diverses réflexions) Arras ona dun Gur'Ichtefana...Biziki ona. Bichkotcha hek fresko freskoak...Nikuste etchen inak...Zer gauzak!  
NURSE...:(revient, avale sa tasse de thé, regarde sa montre bracelet et dit) Finitzen duzelarik, jautsako gira pastierialat. Erosiko dautzuetet briocha handi bat, eta epizeria hurbil beita hartuko dakot zuendako botoila bat arno churi nolakoa!  
KATTALIN...:Biba hi Gur'Ichtefana. Hain hiz maithagarria eta ona (la nurse va à la fenêtre)  
GACHIU...:(à part) Jakin direlarik partikulazki johan girela abian! (à Kattalin) Ah! moñanesa begietan oraino hik.

Scène XI  
Les mêmes plus Babette

BABETTE: (en pyjama, elle a les bras chargés d'un ours et d'une poupée)  
Ze puz pas m'endormir... Vous faites trop de potin... Ze veux des  
gâteaux comme les dames rigolottes. (elle tape du pied et pleurnie  
che)

NURSE...: (poursuivant Babette) Voulez vous partir Babette, et vous remettez  
au lit vite vite! (Babette court par le devant de la scène et en  
passant derrière les fauteuils elle heurte les paniers et tombe.  
Kattalin et Gachiu se lèvent en poussant une exclamation)

KATTALI: Oh! gaicho haurra minhartzeko ere.

GACHIU...: (en même temps) Mehechi.

NURSE...: (a rattrapé Babette, elle la traîne dehors par le bras vivement)  
Fas de pleurs je vous prie Babette. Vous allez vous mettre au lit  
çà vous apprendra... A-t-on jamais vu ça (elles sortent, cris puis  
pleurs puis silence).

Scène XII  
Kattalin et Gachiu puis la Nurse

GACHIU...: Zer gastatua ditakeen nechka tchar hori! Ba-bette (elle scande les  
2 syllabes) ba, ba, izena ontsa ekhartzen din: animale pollita  
dun.

KATTALI: Bainan ikusi duna Gur'Ichtefana nola korreitzen duen! Zer den haa  
tik jakitatea izaitea.

NURSE...: (rentre en trombe et désignant les bagages) zer tutzue botia ho-  
riek denak.

KATTALI: (rayonnante tire les paniers et soulève les couvercles) Hok  
Gur'Ichtefana, hire nagusiendako ikhugarrriak... Hea content izaner  
direz... Lapin bat ederskoa lau kiloko bat...! Bertze huntan an-  
teara bat ederra eta hemen hiretzat chitchitegiko odolgi bat.  
Ornoit hiza zoin maite hintuen?

NURSE...: Ba, ba, bainan gure nagusiek ez dute jaten gauza arinik baizik.  
Horietarik deus ez da heientzat on denik.

KATTALI: (d'un air navré) Bon! beraz zer egin behar tugu gure ihiziak?

NURSE...: Epizierak saltzen ditu holako horiek. Harrek erosiko daitziete.  
Piaiazen saria izanen duzue hala.

KATTALI: Hoi ez! izanen dun beraz sosa hiretzat.

NURSE...: Nik ez dut beharrik (plus bas) ama, 600 libera irabzten ditut hi-  
labeteen.

K et G...: (levant les bras) 600 libera!

KATTALI: Zer sosa Gachiu! nãizko bil hezake hik esketik holako soma, 600 libe-  
ra! Fortuna bat! eta hoi hamabi aldiz urthean.

NURSE...: (riant) Fortuna bat? Jakizazue ez dudala biziki sobera. Ez da hoin-  
beste deprendio. Galtzerdi sosa xaratssetako arropa, ile mozte;  
igandetako athermaldiak, cinema, théâtre, dancing.

KATTALI: (toute tremblante) Bainan Gur'Ichtefana, igandetan juhan hiz bede-  
ren bezperetarat?

NURSE...: (riant de nouveau) Ez eta mezalateere. Uste baduzue Hemen Bidarray  
dela! Arras gibeletik zarezte ba gero han!

GACHIU...: Zer erraiten nenan Kattalin, pottoka libratu ondoan, nork daki  
nun dabilan.

KATTALI: (tortillant son mouchoir) Erran Gur'Ichtefana, nahi bezenbat sos  
idarazirik ere, chahutzen baditunoro aphaindureta eta behar ez  
diren jostetetan, nun dun idaazia ororen buru? Hobeki hel hin-  
dazke herrirat itzuliz... esposa bahinbadi... Etxe churiko Kayete  
kin, es kuetarik juana baita ni nunat jinez geroz eta beñi beha  
beitago noiz itzuliko hizen herrirat. Ez dun urhezko jaun hetarik  
bainan hain dun langilea.

GACHIU...: Eta seriosa!

NURSE...:(s'écartant pour cacher son émotion) Egia erran, gaizo Kaiet!  
 (revenant et se ressaisissant) Bidarraiko mendietarat itzul? Seku  
 lan! Erraiten ahalko duzue Kaieti, ez dadin zeren ene beha egon.  
 GACHIU.:Uste duna! Zer bihótza gure anderisk!  
 KATTALIE:(prend un panier) Harran bestia Gachiu eta goazin hemendik. Badina  
 aski aditurik...Arrazoina huen Gachiu;horra zer egin dutan, ene  
 faltaz, ene falta handiaz( elle se frappe la poitrine à coups de  
 parapluie) Ez ninan utzi behar etchetik jauiterat hain urrun, schi  
 mezialat ere ez johan...debruarekin bat egina...Ah zer gattigua  
 ene urguluarentzat, zer erhokeria( elle sanglote bruyamment, Gachiu  
 l'imite. Toutes 2 chargées de leurs paniers vont vers la porte du  
 fond)  
 NURSE....:(affolée) Zer harramantza! Etohe guzia ekharraziko duzue!(elle se  
 dépêche de fermer la porte derrière les visiteusesimportunes)

R I D E A U

Second Acte  
Scène I  
 La Nurse puis Rosalie

La Nurse affalée dans un fauteuil sanglote tenant un mouchoir  
 d'une main et un télégramme de l'autre. Tour à tour elle s'essuie  
 les yeux et regarde la dépêche. Rosalie entre, avance à peine  
 dans le salon et s'inclinant dans un geste comique:

ROSALIE...:Ichtefana gaichoa zure hascaria zerbitzatua da.  
 NURSE....:(sanglote ne répond rien et congédie du geste)  
 ROSALIE...:(s'apercevant de son trouble et s'approchant d'un air apitoyé)  
 Zer gerthatzen da?...Depecha bat?...Etchen zonbeit malur beharbada  
 (elle vient s'asseoir près de la Nurse d'un air effrayé et s'apprê  
 tant à essuyer des larmes avec son tablier) Ez zautzu ordian nehor  
 hil?  
 NURSE....:(fait signe ne non)  
 ROSALIE...:(rassurée, rabat son tablier) Ah hobe segurki (puis redevenant an-  
 xieuse) Eta beraz?  
 NURSE....:(du milieu d'un sanglot) M. Robert...  
 ROSALIE...:Nor?  
 NURSE....:M. Robert ene gizon geia...(sanglot)  
 ROSALIE...:(imitant un sanglot) Zer zautzu hil?  
 NURSE....:(fait signe que non)  
 ROSALIE...:(rassurée) Ah! hobe segurki, ez zena hain gisakoa...  
 NURSE....:Gisakoa, bai so egin zazu (elle lui tend la dépêche et attend)  
 ROSALIE...:(elle lit tout haut avec difficulté) Je pars pour la Cochon...pour  
 la Cochinchine, n'espère plus me revoir.(elle se lève éclate de  
 rire et fait le tour de la scène en tordant son tablier et en  
 répétant:"Je pars pour la Cochinchine,n'espère plus me revoir"  
 (puis se campant devant la Nurse) Eta horrek zitula nigarrez arran  
 razten? Ha, ah, ha, ha!  
 NURSE....:(s'arrêtant de pleurer) Hainbeste zaudan hitzemana esposatuko  
 ginela, eta sos anhitz izanen ginuela, eta...  
 ROSALIE...:(se démenant) TA, ta, ta, ta, Oraiko gizonek ez dute balio oraiko  
 sosek baino gehiago...deusik.Ah! hitzeman dautchu; hizeman. Ez  
 beitzen khario hitzemaitea! Bainan gaichoa, jakin zazu emaita bain  
 hartze gehiago eginen zaintzula zure errechifoletak. Hori da orai-  
 ko moda hiri hotan. Ez dut erraiten kampagnan bazine, horra nola  
 Eskual Herrian...  
 NURSE....:(intéressée) Kampagnan banintz?

ROSLIE.: (sérieuse comme un oracle) Oh!kampagnan, khambdo da, muthik gazte bat, haurretik ezagutzen duguna zuri atchikia balinbada luzaz eta luzaz, zuretako bizi balitz bezala...

NURSE...: Gaizo kalet!

ROSALIE...: ...orduan segur izaiten ahal zira deus ez hitzemanik ere, zerbeit ekharriko dautzula holako muthikoak eta lehenbizikorik egiazko amodioa...

NURSE...: (se levant rassérée) Plazer egiten dautazu, Rosalie gauza horiek erranez.

ROSALIE: (l'entraînant) Zure zerbitzuko gaichoa! Preseski badut egina zuret zat krema bat, pena guzien ahanstekoa. Etcheke anderia ez oraino jina, beraz: aupa la fiesta!

## Scène II

Elisa puis Babette puis Rosalie.

ELISA...: (un plumeau à la main; elle vient épousseter les meubles du salon. elle commence en silence puis s'arrêtant devant le guéridon: Ez du gehiago buregoan anderia! Alabainan! beita kigu orai nungo alaba den Gur'Ichtefana! (on entend une voix d'enfant dans le couloir: Lelly; Lelly!)

ELISA...: Elle n'est pas ici Lelly Et puis il ne faut plus dire Lelly, Melle Babette, il faut dire Gur'Ichtefana! (elle lève des yeux étonnés vers la porte de droite et s'écrie); Mais...qu'est ce que vous faites dans ce costume?

BABETTE: (apparaît travestie drôlement en paysanne) Je fais comme les dames rigolottes qui sont venues hier!

ELISA...: (ecarte de rire) C'est très bien Melle Babette, Venez... (Babette approche gauchement? Elisa la fait tourner et riant toujours) Eta zoin ontsa emana? Zer haurraren izpiritua! Ez din ikhusten Gur'Ichtefanak. (à Babette) Voyons asseyez-vous sur ce fauteuil.

BABETTE: (approche du fauteuil à reculons, s'assied au bord et s'écrie): Maintenant ze veux des gâteaux comme les dames!

ELISA...: Oui. Rosalie va vous en donner (à part) hunen ikhustiak ere balio din zerbeit (elle appelle) Rosalie, Rosalie, zato fite Jainkoa!

ROSALIE: (accourt avec à la main un couteau et une patate non pelée) Zer da mirakuilu! (apercevant Babette, elle s'écrie): Ihauteria dazue naski etchean.

BABETTE: Ze veux des gâteaux comme les dames rigolottes.

ROSALIE: Comme quoi?

ELISA...: Atzoko emazte hek ditu horiek. Gur'Ichtefanaren etchekoak. Ez dea ontsá!

ROSALIE: Ederki, haur batek egiteko. Bainan guk ez dugu beharbada hoin ontsa egiten nechka gaicho hortaz trufatuz.

ELISA...: (riant) Gur'Ichtefana! ez du segurki mehechi duena baizik (on entend au dehors une voix qui appelle) Rosalie! Rosalie!

ROSALIE: Hura da hori.

ELISA...: Gur'Ichtefana (à Babette) Echappez vous Babette!

BABETTE: (jetant ses paniers à terre) Non! Ze veux des gâteaux

ELISA...: (courant à Babette) Echappez vous, sinon Lelly va vous enfermer, (elle ramasse paniers et contenu en vitesse et entraîne Babette. Rosalie impassible se met à peler sa patate. Par la porte de gauche apparaît la Nurse)



Scène III  
Rosalie et la Nurse

- La Nurse apparaît endimanchée, une valise à la main gauche, un mouchoir à la main droite, visiblement abattue)
- ROSALIE.: (s'arrête à peler sa patate et se croisant les bras) Bon maitia hau pollita dugu! Nigarrez oraino ere! Ene kremak ez dautzu on handirik egin! Eta norat ari zira fantasia hortan?
- NURSE...: Juhan niz Rosalie; Etcheko anderiak kamporat manatzen nau letra batez. Erraiten daut toki bat bilhatzen ahal dutala...
- ROSALIE.: Toki bat?... Ori, hauta zazu lehenik hementcheko fotoila hauntan. Ez da ez da hola husten etche bat! Eta zorzi egunak norendako eginak dira: chakurrentzat? (La Nurse va lentement s'asseoir et ne dit rien. Après une pause Rosalie poursuit.) Eta zertaz arrangura da Etcheko anderia?
- NURSE...: Batere ez dakit. Bada hargatik norbeit hemen dakiitena. Elisa gaichtagin horrek hainbeste errabili du ene kontra, eta azkenean erreusitu!
- ROSALIE.: Eta hortako zireta johan? (brandissant sa patate) Arrazoin gehiago egoiteko gaichoa!
- NURSE...: Ez da posible, Rosalie, zombat trufa ez nuke aditu behar? Juhan niz abian... (elle s'apprête à se lever)
- ROSALIE.: (la repousse dans le fauteuil) Juhan? bainan norat ordian Jainko ona?
- NURSE...: Pariserat. Baitut han jendi ezgun batzu. patchemanen ahal dut lekhu bat (sanglot) azkenian uraren zolan bederen.
- ROSALIE.: Zer erraiten duzu? (on sonne, on hèle bruyamment, Rosalie fait signe à la Nurse de ne pas bouger et se précipite dans le couloir par la porte du fond. La Nurse sanglote dans son fauteuil, puis elle écoute semblant reconnaître une voix qui dit: Berriz heldu gira jendi onak.
- NURSE...: Gure Ama! zerk ekhartzen othe du! Nik atzo hoin triste utziak, orai nere aldi. (elle recommence à pleurer et se cache le visage dans son mouchoir)

Scène IV  
Les mêmes plus Kattalin et Gachiu

- ROSALIE.: (entr'ouvre la porte et s'adressant à la Nurse) Zure etchekoak kenka huntan! Jainkoa gorde bazine bederen!
- NURSE...: Utz kitu sartzeat, bardin du.
- ROSALIE.: (entre à reculons de façon à cacher la Nurse) Sar ziezte anderiak
- KATTALIN: Uste duzua! barda treina huts inik, Hotel batian etzenak gira..
- GACHIU...: Ez beita Jainkoaren izenean hamabortz libera!
- KATTALIN: Eta ororen buru ez ginela berriz Gur'Ichtefanan ikhusi gabe itzuli behar.
- ROSALIE.: (en s'écartant) Huna nun den (en ce moment la Nurse sanglote de plus belle)
- KAT et GA: (laissent tomber à terre parapluies et paniers) Gur'Ichtefana! zer gerthutzen da! Jainko ona!
- ROSALIE.: Zuen Ichtefana kbihotz eria du biziki. Jaun pimpirina batek abando natu duetakotz anhitz hitzeman ondoan...
- KATTALIN: (l'entoure de ses bras) Gaicho ene Ichtefana. Zertako ez bada niri erran jaun batekin atchikitzen huela. Ez tin gauza horiek gorde behar hire amari.
- ROSALIE.: Eta garo, gauzen antolatzeko ez duia Etcheko anderiak batere funtsik gabe kamporat manatu? Orai Pariserat abian zen, eta beldu nintzan uraren zolarat aurthikiko othe zuen bere burua...

KAMEALIN: Ja, ja, Gur'Ichtefan Ez dun hire burua urerat aurthikoko ez! ez  
(elle caresse sa fille) Etcherat jinen hiz, ba; etcherat, gurekin  
Ikhusiko dun nola ontsa arthatuko hitugun, Ebanjelioko haur pro-  
diguaren gisa...Eginen diun phesta guk ere eta gomitatuko diun  
Kaiet Etchechurkhoa...Ahantziko tun harrekin beste jaun ez deus  
haren gezurrak...Eta hire bathaioko ezkiiek joko dine hire ez-  
kontza. Han izanen hiz urus, sor lekhuari...Ez dun halakorik Gur'  
Ichtefana.

NURSE.....:(se redresse un peu, passe la main sur son front, parle comme en  
songe, lentement) Ez othe da ontsa mintzo ene ama... Sor lekhuari...  
Elizako ezkiak...ene etchea, Kaiet, gaizo Kaiet...Beharbada  
oraino...(soudain elle tend les bras à sa mère) Ama, har nezazu  
zurekin

KAT et GA:Gur'Ichtefana.!

-----